**SIESTA**

Udalekuan bada batere gustatzen ez zaidan gauza bat:egunero, bazkaldu ondoren, lo egin beharra. Siesta egitea derrigorrezkoa da, alferrikakoa da aitzakietan ibiltzea. Eta hori ez da bidezkoa, ezta? Zeren goizetan, ohetik jeiki ondoren, ez baitugu askorik egiten: gimnasia egin, geure burua garbitu, oheak egin, gosaldu, hondartzara joan, itsasoan bainatu eta hondarretan jolasean ibili, besterik ez. Eta horren ondoren ez dugu zertan nekaturik egon eta lo kuluxkarako beharrik izan.

Dena den, siestak badu guza on bat: taldeko burua etaortzen da barrakoira gu zaintzera eta ipuinak kontatzen dizkigu lasai egoteko.Eta hori gozamena da!

RENÉ GOSCINY

Nikolas txikiren oporrak

1. Non zegoen protagonista?

   Eskolan

   Udalekuan

   Aitona-amonen etxean

2. Esan **BAI** ala **EZ**:

   Gustuko al du siesta protagonistak?

   Bazkaldu ondoren lotara joatea da siesta egitea.

3. Osatu, bi hitz hauetako bat idatziz: **borondatezkoa** ala **derrigorrezkoa**.

   Udalekuan siesta zen.

4. Jarri ordenean zenbakiak erabiliz, haurrek oporretan egiten dutena:

   Gosaldu eta hondartzara joan.

   Bainatu eta hondarretan jolastu.

   Bere burua garbitu eta oheak egin.

   Ohetik jaiki eta gimnasia egin.

5. Aukeratu esaldi zuzena. Taldeko buruak kontatzen zizkien ipuinak:

   Siesta orduko gauzarik okerrena ziren.

   Siesta orduko gauzarik onena ziren.

LIVEWORKSHEETS